DONOSTIAKO GABONETAKO KANPAINAN BABESLETZAK ERAKARRI ETA KUDEATZEKO LAGUNTZA EMANGO DUEN ENPRESA ESPEZIALIZATUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Donostiako Gabonetako Kanpaina antolatzen da hiriko merkataritza suspertzeko eta, Gabonetan, erakargarriago egiteko.

Hiriko merkataritzaren eta turismoaren dinamizazio eta animazio proiektua da, horretarako bi elementu nagusi erabilita:

1. **Gabonetako argiak:** hiriko erdigunea eta auzoak urtero aldatzen diren Gabonetako argi berritzaileekin apaintzen dira. Hiri gehienetan ikus daitezkeen apaingarriez gain, Donostian tokiko talentuaren aldeko apustua egiten dugu eta geure Gabonetako argi propioak diseinatzen ditugu. 2020ko edizioan, artista donostiar batek (Iñigo Arístegui) hiriko Gabonetako argiztapenean parte hartu zuen lehenengo aldiz. 2021eko ediziorako desberdintzearen alde egiten jarraituko dugu paregabeak diren Gabonetako argiekin.

2. **Gabonetako Azoka:**
   - Urumea pasealekuan eta Ramon Labayen plazan kokatuko dira erakustokiak, produktu artisauak, apaingarriak, opariak, elikagaiak eta abar eskainiko dituztenak. Osasun egoeraren arabera, jarduera ludikoak antolatzeko aukera planteatuko da.
   - Federico García Lorca plaza eta Cervantes plaza: haurrentzako barrakak.
   - Alderdi Eder: noria, argi eta soinu ikuskizuna eta argizko bola.

2019/2020 Gabonetako Kanpainaren emaitzak hauek izan ziren:

- ATRAKZIOETAN IGO ZIREN PERTSONEN KOPURUA (19/12/01etik 20/01/06ra): 65.800 pertsona.

- JARDUERA EKONOMIKOA. Azokaren inpaktu ekonomikoa 2,08 milioi eurokoa izan zen.

- LANTEGIETAN PARTE HARTZEA. Orotariko 60 kultura jarduera gauzatu ziren: kontzertuak, haur eta helduei zuzendutako lantegiak, magoak, pailazoak, etab. Urumea plazako karpan eta 2260 pertsonak parte hartu zuten.

- BERTARATUEN ZENBAKETA. Gabonetarako instalatu ziren pertsonak zenbatzeko sentsore guztiek erregistratutako batez besteko guztizko kopurua 1.390.000 pertsonakoa izan zen, azaroaren 30etik urtarrilaren 6ra bitartean zenbatuak.

Adierazle guztien arabera, Gabonetako Azokaren proposamenak hirian jarduera ekonomikoa sortzen jarraitzen du. Elementu jakinen instalazioaren berrikuntzari esker, esaterako, noria, Gabonetako Azoka tokiko eta estatu mailako komunikabide nagusietan agertu da.

2020/2021 edizioan, bizi dugun osasun egoeraren ondoriozko mugikortasun mugen eta arauen arren, Gabonetako argiak jarri ziren eta Gabonetako Azoka antolatu zen. Azokan postuak jartzeko eskaerek areagotzen jarraitu zuten eta, bertaratuak nabarmenki gutxiago (-% 40) izan arren mugak zirela eta, postuen fakturazioa % 8an igo zen aurreko edizioarekin alderatuta.

Donostiak publiko fidela du Gabonetan eta komunikabideek ematen dioten estaldura geroz eta handiagoa da (tokiko mailan zein estatu mailan).
Entitate eta erakunde publiko eta pribatuen, agenteen, enpresen eta merkatari-ostalarien elkarteen lankidetza eta laguntzari esker espazio ludiko, komertzial, bizi eta alaia sortzen da donostiarrentzat eta bisitarientzat. Hori ikusita, uste dugu honelako proiektuak lagungarriak direla hiria eskualde mailan indartzeko eta enpresa eta saltoki txikiek ekimena begi onez ikusten dutela.

Jarraian zehaztu dira zerbitzua emateko baldintzak:

ZERBITZUA ABIARAZTEA:

1. Abiarazteko bilera:

Enpresa adjudikaziodunak eta Fomento de San Sebastián, S.A. sozietateak (aurrerantzean, DONOSTIA SUSTAPENA edo erakunde kontratatzailea) lehenengo bilera bat egingo dute zerbitzua abiarazteko eta bertan zehaztuko dituzte proiekturako pertsona solaskideak eta bi erakundeen arteko komunikaziorako kanalak. Horrez gain, DONOSTIA SUSTAPENAK **Gabonetako Kanpainaren Merkataritza Dosierra** entregatuko du, babesleak erakartzeko oinarrizko dokumentu gisa erabiliko dena. Bilera hori egingo da gehienez ere 7 egun naturalen buruan, kontratuaren sinaduratik hasita.

Lizitazio honi informazio helburuetarako erantsi zaion merkataritza dosierrean adieraziko dira antolatuko diren eta babesleen interesekoak izango diren jarduerak. Gabonetako Kanpainaren proiektuak aurrera egin ahala, dokumentua egokituz eta/edo aldatuz joango da, beraz, DONOSTIA SUSTAPENAK enpresa adjudikazioduna jakinaren gainean jarri beharko du eta enpresa adjudikaziodunak aldaketa horiek jaso eta bere zerbitzua horien arabera egokitu beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak DONOSTIA SUSTAPENARI helaraziko dizkio egokitzat jotzen dituen dosierraren hobekuntza guztiak, babesleak erakartzeko helburuarekin.

Abiarazte bileran, DONOSTIA SUSTAPENAK eta enpresa adjudikaziodunak azken honek lizitazio fasean zehar aurkeztutako proposamenaren puntu guztiak berrikusiko dituzte, alderdietako edozeinek izan ditzakeen zalantzak argituta.

Halaber, kontratazio honen objektua osatzen duten zerbitzuak gauzatzeko aurreikusitako epeak ere alderatuko dira, enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako plangintzaren arabera.

2. Jarraipen bilera:

Hamabostaldian behin, bilduko dira (telematikoki, ahal bada) enpresa adjudikazioduna eta

DONOSTIA SUSTAPENEKO arduradunak, zerbitzua emateko ezarritako lanen aurrerapena ezagutzeko eta Gabonetako Kanpainaren proiektuaren egoeraren berri emateko, babesletzak erakartzeko lagungarriak diren ekintzak definitu eta zehaztuta.

Bilera hauetan, DONOSTIA SUSTAPENAK enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren eta Gabonetako Kanpainaren proiektuaren egikaritzean zehar proposatzen dizkion babesle berriak aztertuko ditu.

Astean behin, enpresa adjudikaziodunak DONOSTIA SUSTAPENEKO arduradunari bidaliko dio egindako lanetan izandako aurrerapenak, lorpenak eta zailtasunak islatzen dituen txosten labur bat. Halaber, helburuak lortzeko beharrezkoak diren hobekuntzak proposatuko dituzte.

Era berean, zerbitzuaren epeak eta plangintza zehaztuz joango dira proiektuaren garapenaren arabera, Gabonetako Kanpainaren merkataritza dosierrarekin batera. Aipatu den moduan, dosier hori aldatu ahalko da proiektuaren beharretara egokitzeko.

3. Zerbitzua ixteko bilera:

Kontratu honen objektua osatzen duten jarduketa guztiak amaitu ondoren, amaierako bilera bat egingo da beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkezteko eta DONOSTIA SUSTAPENAK zerbitzuari oniritzia emateko, ondoren zerbitzua fakturatu ahal izateko. Horrez gain, **Zerbitzuaren Amaierako Txostena** berrikusi eta onartu egingo da ere.

ZERBITZUA EGIKARITZEKO GARATU BEHARREKO LANAK:

Zerbitzua emateko enpresa adjudikaziodunak egin beharreko lanak hauek izango dira:

1- Babesleak erakarri eta kudeatzeko proiektuaren diseinuaren zerbitzua:

Enpresa adjudikaziodunak, egokitzat jotzen dituen hobekuntzekin eta DONOSTIA SUSTAPENAREN jarraibideak kontuan hartuta, lizitazio fasean aurkeztutako memoria teknikoa egokitu eta zabaldu beharko du. Memoria horrek barne izango ditu:

1. **Diagnostikoa eta diru sarreren aurreikuspena:** lizitazio honen objektua den ekitaldiaren analisia: ekitaldiaren potentzialak eta diru sarreren aurreikuspen arrazoitua.

2. **Babesle posibleen deskribapena:** babesletza bilaketaren xede izango den/diren sektore ekonomikoaren edo sektore ekonomikoen zerrenda. Zerrendarekin batera justifikazio memoria labur bat aurkeztuko da. Osagarri moduan, babesle posibleen zerrenda bat aurkeztuko da, horietako bakoitzarentzat adierazita aurreikusitako partaidetza maila posiblea, babesletza politika, aurretik egin dituen antzeko ekitaldien babesletzak eta egokitzat jotzen den beste edozein informazio.

3. **Epeen aurreikuspena eta lan egitasmoa:** zerbitzua garatzeko plangintza fasetan banatua, helburuak eta fase bakoitzaren edukia.

Enpresa adjudikazioduna jarduketa honekin hasiko da, zerbitzuaren abiarazte bileran bertan.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak, DONOSTIA SUSTAPENAREKIN batera, bisita egingo du Gabonetako Azokarekin lotura izango duten instalazioetarako aurreikusitako eremuetara, horiek aztertu eta ebaluatzeko aukera izateko.

15 egun naturalen buruan, enpresa adjudikaziodunak eta DONOSTIA SUSTAPENAK enpresa adjudikaziodunak egindako diagnostikoa eta diru sarreren aurreikuspena berrikusi eta alderatuko dituzte, babesle posibleen deskribapenarekin eta epeen aurreikuspenarekin eta lan egitasmoarekin batera. Berrikusketa honen helburua izango da informazio honen inguruan alderdietako edozeinek izan ditzakeen zalantzak argitzea.

DONOSTIA SUSTAPENAREN iritzia jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak adostutako aldaketa guztiak egin beharko ditu 7 egun naturalen buruan.

Ondorioz, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren objektua den zerbitzua abiarazteko txosten itxi eta adostu bat aurkeztu beharko dio DONOSTIA SUSTAPENARI.

2- Babesleen kudeaketa zerbitzua:

Zerbitzu hau emateko, enpresa adjudikaziodunak eginkizun hauek bete beharko ditu:

1. **Babesleak bilatzea / erakartzea:**

   DONOSTIA SUSTAPENAK oniritzia eman beharko die enpresa adjudikaziodunak proposatutako babesleei horiekin harremanetan jarri aurretik. Halaber, oniritzia eman beharko die erabiliko diren materialei eta babesleak erakartzeko kanalei.

   Intereseko enpresei dagokienez, enpresa adjudikaziodunak kontuan hartu beharko ditu babesletza mota hauek:

   a. ***Babesletza ekonomikoa:***

      Diru kantitate bat ematea ekitaldian eta ekitaldiko bitarteko eta plataformetan egingo den publizitatearen truke: gizarte sareak, gonbidapenak, proiekzioak, programa ofizialak, prentsa oharrak, logotipoa agertzea babestutako ekitaldiaren sustapen materialetan, etab.

      Gutxieneko ekarpena 10.000 €-koa izango da babesle bakoitzeko, kontuan hartuta DONOSTIA SUSTAPENAK enpresa interesdunen babesletza lortzeko enpresa adjudikaziodunaren eskura jarri dituen elementu motak. Babesletza hauek erakartzeak lehentasuna izango du gainerako babesletza moten aurretik. Enpresa adjudikaziodunaren helburua izango da erakarritako babesletza guztien % 80 babesletza ekonomikoak izatea. Hala ere, enpresa adjudikaziodunak DONOSTIA SUSTAPENARI proposatu ahalko dizkio zenbateko horretatik beherako babesletzak, babesletza egiteko interesa duten enpresen kopuruaren arabera eta babesletza horien

zenbatekoaren arabera. DONOSTIA SUSTAPENAK babesletza horiek onartzeko aukera izango du.

b. ***Babesletza ez ekonomikoa:***

1. Babesletza materiala edo gauzazko babesletza:

Babesleak ekitaldian zehar kontsumituko diren ondasunak edo zerbitzuak edo ekitaldia antolatzeko beharrezkoak diren materialak eskainiko ditu. Ondasun edo zerbitzu hauek 2021eko Donostiako Gabonetako Kanpainaren proiektuarekin lotura izan beharko dute edo Gabonetako ondasun edo zerbitzu ohikoak izan beharko dira. Adibide moduan aipa daitezke: Azokako jarduera ludikoetarako ekipamendua, aisialdiko lantegi posibleetarako materialak, aisialdiko agendarako edukia, apaingarriak edo Azokaren merchandising produktuak, bertaratuei zuzendutako elikagaiak edo edariak, etab.
Kasu hauetan, DONOSTIA SUSTAPENAREN oniritzia jaso beharko da babesletza bakoitzerako.

DONOSTIA SUSTAPENAK eta babesleak merkatuko prezioan zenbatetsiko dituzte eskainitako ondasun edo zerbitzuak. Mota honetako babesletzak gehienez ere erakarritako babesletza guztien % 10 izango dira.

2. Bitartekoen babesletza:

Babesleak ekitaldiaren estaldura mediatikoa finantzatuko du edo, gutxienez, informazio estaldura egongo dela bermatuko du (iragarkiak tokiko komunikabideetan, publizitate panelak, iragarkien grabaketa, etab.).

DONOSTIA SUSTAPENAK eta babesleak merkatuko prezioan zenbatetsiko dute eskainitako zerbitzua, gutxienez ere 10.000 €-koa izango dena, kontuan hartuta DONOSTIA SUSTAPENAK enpresa interesdunen babesletza lortzeko enpresa adjudikaziodunaren eskura jarri dituen elementu motak. Zenbateko horretatik beherako proposamenak izatekotan, DONOSTIA SUSTAPENAK proposamenen egokitasuna aztertu ahalko du. Mota honetako babesletzak gehienez ere erakarritako babesletza guztien % 10 izango dira. Hala ere, enpresa adjudikaziodunak DONOSTIA SUSTAPENARI proposatu ahalko dizkio zenbateko horretatik beherako babesletzak, babesletza egiteko interesa duten enpresen kopuruaren arabera eta babesletza horien zenbatekoaren arabera. DONOSTIA SUSTAPENAK babesletza horiek onartzeko aukera izango du.

Enpresa adjudikaziodunak babesle mota hauek kontuan hartu beharko ditu:

- Entitate pribatuak eta erakunde publikoak, **Donostiako hiriarekin edo EAEko lurralde historikoarekin lotura dutenak** eta DONOSTIA SUSTAPENAREKIN hiriaren sustapen eta ekonomia garapenaren helburuak partekatzen dituztenak horretarako berrikuntza, ezagueren sorrera eta eraldaketa, sareko lana eta proiektuen

sustapena eta kudeaketa baliatuta, betiere jasangarritasun irizpideei jarraituta.

- Entitate pribatuak eta erakunde publikoak, **Estatuko gainerako lurraldeetakoak edo nazioartekoak,** euren berrikuntza, tradizio, kalitate eta abarrengatik nabarmentzen direnak eta Donostiako hiriarekin eta DONOSTIA SUSTAPENAREKIN koherenteak diren jarduerak eta balioak dituztenak.

Orientazio moduan, elementu hauek erabili ahalko dira 2021eko Donostiako Gabonetako Kanpainaren babesletzarako:

- Urumea pasealekua:
  - Seinalizazio totem-ak Azoka osoan zehar.
- Ramon Labayen plaza:
  - Barrakak
  - Gabonetako argiak
- Kontxa pasealekua:
  - Noria
  - Haurrentzako barrakak
  - Argi eta soinu ikuskizuna
- Alderdi Eder:
  - Gabonetako bola argitsua
- Konstituzio plaza:
  - Gabonetako argiak

Horrez gain, enpresa adjudikaziodunak eta DONOSTIA SUSTAPENAK babesletzarako espazio eta elementu alternatiboak eskaini ahalko dituzte.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak aldez aurretik jakinarazi beharko dizkio DONOSTIA SUSTAPENARI informazio eta/edo negoziazio bilerak eta DONOSTIA SUSTAPENEKO arduradunak bilera horietan parte hartzeko aukera izango du, beharrezkotzat jotzen badu.

Edonola ere, DONOSTIA SUSTAPENAK enpresa adjudikaziodunari jakinarazi ahalko dizkio erakarri nahi dituen babesle zehatzak, eta enpresa adjudikaziodunak horiek erakartzeko jarduketa egokiak egingo ditu.

Etengabeko harremana babesleekin:

Halaber, enpresa adjudikaziodunak etengabeko harremana mantendu beharko du babesleekin eta, ondorioz, jarduketa hauek egin beharko ditu:

- Enpresa babeslearen eta DONOSTIA SUSTAPENEKO komunikazio sailaren arteko komunikazioa kudeatzea, marken fitxategiak eskatutako euskarrian jasotzeko eta gauzatutako babesletza akordioaren araberako materialak eta elementuak jasotzeko ere.

- Babesleen, DONOSTIA SUSTAPENAREN eta laguntza edo ekarpenen amaierako

hartzaileen artean egin beharreko izapideak ahalbidetzea, bai babesletza akordioa lortzeko eta baita horren ondorengo jarraipena egiteko ere, betiere kontratuetan/hitzarmenetan onartutako betebeharrak betetzen direla gainbegiratuta.

- Komunikazio euskarrietarako eta mintzairarako hobekuntzak proposatzea Donostiako Gabonetako Kanpainaren publizitateari dagokionez.

DONOSTIA SUSTAPENAK eta enpresa adjudikaziodunak ezarritako egutegia aldatu ahalko dute.

Zerbitzua amaitzea:

Enpresa adjudikaziodunak gorago adierazitako lanak burutu ondoren, **Zerbitzuaren Amaierako Txosten** bat prestatu beharko du, gutxienez ere atal hauek barne izango dituena:

- Helburuen lorpena
- Lortutako emaitza nagusiak
- Antzemandako gorabeherak
- Hobetzeko proposamenak
- Enpresa adjudikaziodunak babesle parte hartzaileei egindako inkesta labur bat barne izango duen balorazio orokorra.

Txosten hau DONOSTIA SUSTAPENARI helaraziko zaio eta horren balorazioa jorratuko da alderdien artean antolatzen den zerbitzua ixteko bileran.

Babesleen kudeaketarekin lotutako lanak enpresa adjudikaziodunak erakartzen duen babesle bakoitzarekin gauzatu beharko dira eta fakturazio unitatea izango da enpresa adjudikaziodunak erakarritako babesleen kopurua.

Hala ere, DONOSTIA SUSTAPENAK babesle propioak izan ahalko ditu. Horien inguruan ez da inolako lanik egin beharko eta ez dira fakturatuko. Kontratuaren objektua den zerbitzuaren hasieran, DONOSTIA SUSTAPENAK zerbitzua abiarazteko bileran adieraziko ditu dagoeneko lortu dituen babesleak eta, kontratuaren objektua den zerbitzua egikaritu bitartean DONOSTIA SUSTAPENAK beste babesleren bat erakarriko balu, hala jakinaraziko dio enpresa adjudikaziodunari. DONOSTIA SUSTAPENA zuzenki arduratuko da babesle hauen kudeaketaz eta babesle hauek ez dira kontuan hartuko fakturazio unitate gisa.

<u>Babesleak erakartzeko pizgarria</u>

Gorago adierazitakoaren arabera eta **babesleak erakartzeko pizgarri moduan,** enpresa adjudikaziodunak % 19ko komisio bat edo proposamen ekonomikoan eskainitako komisio portzentajea jasotzeko eskubidea izango du kasu bakoitzean lortzen den babesletza berriaren zenbatekoaren gainean. Hala ere, ez du inolako komisiorik jasoko DONOSTIA SUSTAPENAREN babesle propioen kasuan.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak babesletza berria kudeatu beharko du adostutako zenbatekoa jaso arte eta momentu horretan izango du aurkeztutako eskaintzan proposatutako portzentajea jasotzeko eskubidea.

Donostian, 2021eko abuztuaren 2an,

35775793Y
ENEKO GOIA
(R: P2007400A)

Digitalki sinatuta norengandik: 35775793Y ENEKO GOIA (R: P2007400A)
Data: 2021.08.02 14:05:08 +02'00'

Eneko Goia Laso
Donostia Sustapena S.A.ko Presidentea